

FRUIZBARRI

Fruizko barriak
Euskara Zerbitzua
Fruizko Udala
2012ko zemendia
43.zk.

FRUIZBARRI

Bajoaku, bajoaku 2012a eta, urte amaieran egin ohi dan lez, aurtengoak errepasatu eta urte barrirakoak planifikatu beharra dago orain.

Ondo planifikatu beharra.

Ikusitakoak ikusita, garai gogorrek jatorkez eta, aurrera egingo badogu, behar-beharrezkoa izango dugu alkarlana, alkartasuna, ekimena, ideia barriak...

Olentzero bera be konturatu da horretaz guztiaz eta, aurten, laguntzagaz jatorku herrira.

Ondo amaitu urtea, eta izan zoriontsu!



euskarazko produktuen katalogoa

musika | filmak | aldizkariak | komikiak | liburuak | gurasoentzako materiala | informatika | jostailu eta jokoak

Kalean da euskerazko produktuen katalogoa. Bertan merkatuan euskeraz daukoguzanak aurkituko dozuez, arloka eta adinka sailkatuta. Katalogoa udaletxeko web orrian www.fruiz.net ikusi zein deskargatu ahal izango dozue eta baita www.katalogoa.org helbidean be.

"HEMENDIK SARIA" FRUIZKO FUTBOL TALDEARI

Fruizko Futbol Taldeak Mungia eta Uribe Butroe Mankomunitateko "Hemendik Saria" jaso eban zemendiaren 27an.

Fruizko Futbol Taldea orain dala 27 urte sortu zan eta saria emon jako, besteak beste, udalerriko lehenengo alkartea bera izan dalako eta ibilbide luze oparo horretan kirola sustatzen eta herriaren izena zabaltzen egin dauan lan handiagaitik.

Zorionak eta urte askotarako !!



FRUIZKO LAMIÑE ABESBATZA

Fruizko Lamiñe Abesbatzak abenduaren 23an (domeka) eskainiko dau Gabonetako emonaldia, meza ostean, 12:45 aldera.

FRUIZKO NAGUSIAK MADRILEN

FRUNA alkartearen ekimenez, herriko nagusiak Madrilen izan ziran urrian turismoa egiten. Guztira 43 lagun animatu ziran bidaiarako eta hemen dozue Fruizbarrirako bialdu deuskuen kronikatxoak:


Urriak 26: Prado museoa bisitatu.

Urriak 27: Autobusez bisita panoramikoa Madriletik. Arratsaldea libre.

Urriak 28: Santo Domingo de Silos. Meza entzun monasterioan. Meza ostean, kontzertuak (kantu gregorianoak, Zaragozako korua...).

“Hotela Chamartinen egoan, barria, logela zabalak, janarian aukera handia (buffet librea), tratua pertsonala eta beroa (hurbila). Guretzat hainbat ibilbide egon arren alde zaharrera, gu geure autobusagaz konpontzen ginan. Aktibitateak bakoitzak bere erritmoan eta gogoaren arabera egiteko modukoak. Puerta de Soletik bueltatxoak eman, “Manolita” loteria-dendan gabonetako loteria erosi...”

Bigarren egunean batzuk “El Rey León” musikala ikusi genduan, eta ikaragarria benetan: koloreak, mugimenduak, doinuak, erritmoak, abestiak, ezusteak...



Madrileko urteerera joan ginan hasikeran apur bat larri, hiri handia zala, jentetza handia topauko genduala... Eta aurkitu genduan: ohiko alde zahar bat, ez hain ikaragarria, eta atrapa egin euskun. Oso lasai eta gustura ibili ginan, zapatu iluntzean, manifestazinoa zala-eta, kale batzuk zarratuta egon arren”.



FRUIZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

Garagarrileko zenbakian aipatu genduan moduan, Fruizko Udalak bere gain hartu dau Gizarte Zerbitzuen arloa, eta orain udaletxetik bertatik erosten dira arlo horregaz lotutakoak (Lehen Mungialde Gizarte Patzuergoa arduratzen zan).

Zerbitzu horrerri jagokozanetarako langile bat egoten da udaletxean (Eider), **EGUENETAN, 11:00etatik 13:00etara**. Beragaz egoteko ordua hartu behar da udaletxean (94 615 32 10).



Honeek dira Fruizko Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen diran baliabideak, programak eta zerbitzuak:

-Herritarrei arreta, informazioa, egoeren balorazioa eta aholkularitza eskaintzen jakie.

-Herritarrei honako zerbitzu honeek bideratzen laguntzen jakie:

- * Teleasistentzia
- * Etxez etxeko laguntza zerbitzua
- * Egoitzetan zein eguneko zentroetan sartzeko eskariak
- *Ezinduentzako aparkatzeko txartela eskuratzen lagundu
- *Ezintasun ziurtagiria lortzeko eskariak
- * Mendekotasunen balorazioa
- *Diru-laguntzak
- *Bidaietarako informazioa eta eskabideak
- *Larrialdi egoera bereziak (tratu txarrak, drogomenpekotasunak...)
- *Adinbakoentzako eta familientzako autoebaluazio eta diagnostiko zerbitzua
- *Ezintasunen bat daukienei informazioa. Bertotik bideratuko dira beharrianak eta eskariak.

DURANGOKO LIBURU ETA DISKO AZOKA

Datak: Abenduaren 6tik 9ra.

Ordutegia: 10:30etatik 20:00retara

Informazio guztia: www.durangokoazoka.org

47. DURANGOKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO AZOKA

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

